

20/06/2009

Hernani. Museo Chillida Leku "Lantokiko artelanak"

Eduardo Txillida artistak Legazpiko Patricio Etxeberria lantokian eginarazi zituen bere lan ezagunetariko asko. Hango langileak izan zituen sorkuntza bidean lagun. Atzo langileak Hernaniko Txillida Lekura joan ziren, haiek ere egindako lana artelan bihurtuta ikusteko. 30 langile inguru joan ziren Lenbur fundazioak antolatu zuen irteerara, gehienak lehenago museoan egon gabeak. Askok ziotenez betidanik zuten joateko gogoia, eta atzo egin zuten azkenean iraganerako bidaia.

Artelanak egin zituzten langile askok obrak bukatuta ikusi gabe zituztela jakin genuen. Laneko pieza gisa ikusten zituzten oraindik, adierazi dute ekimenaren antolatzaileek. Bestalde, langileek obra bakoitzarekin kontatzeko istorioak dituzte. Txillidarekin hartu-eman handia izan zuten egiteko prozesuan, eta jakintza hori ere bildu nahi genuen nolabait.

Legazpiko papertegi zaharrean egingo duten Txillidaren museorako ere baliatuko dute informazioa. Gehientzako lan polita izan zen artistarekin eginikoa. Txillidak langileen ekarpenak asko entzuten zituen. Bera artista izanik, arlo teknikoan sor zitezkeen arazoez eta soluzioez langileak arduratzen ziren. Txillida geroago artista bezala zeinen ospetsu bihurtuko zen ideiarik ez omen zuten langileek garai hartan. Baina zerbait handia izango zen susmoa hartu genion, jartzen zuen gogoagatik, diote langileek. Piezak ondo egin beharrak sortzen ziren arduraren zama gainetik kenduta ibili ziren atzo langileak pieza berak ikusten. Denborarekin presarik hartzen ez bazuen ere, artista exigentea zen Txillida, gogoratu du langile batek. Batzuetan bezperatik probak egiten aritzen ziren langileak, artista joaterako lana nahi bezala irten zedin.

Burdin puskak artelan

Langileek artistari pozik laguntzen zioten, baina aitortzen dutenez lan soila zen haientzat: Guretzako lana zen, lantokian egiten genuenaren modukoa. Orduan oraindik burdin puska batzuk ziren, ez genuen ondoren museo batean egongo zirela imaginatzen.

Gustura ibili ziren piezen artean atzo, lantokiko burdin puska haiei inoiz pentsatuko ez luketen begiekin begiratzen zieten bitartean.

Haizearen Orrazia

Haizearen Orrazia Txillida Leku museoan ez badago ere langile gehienek aipatzen dute. Misterio handieneko pieza da, dio batek. Baita lan asko eman ziguna ere. Labe berezi bat moldatu behar izan zuten piezaren kurbaturak sar zitezen. Burdin puska horiek okertzea berebiziko lana izan zen, prentsarekin eutsi eta garabiekin tira eginez okertu genituen azkenean, kateak ere puskatzeraino, gogoratu dute langileek Haizearen Orrazia. Euren aztarna utzi nahi zuten piezan. Barnealdean pieza egin zeneko data jarri

genuen, gorputza kirtenetara lotzeko dauden pusketan, dio prozesuan aritu zen langile batek.

Baina ez dira haiek lana eman ziela oroitzen duten pieza bakarra. Kutxa banketxearen logotipoaren irudiko zuloak ere kostata eta sopleteak erabiliz egin zituztela oroitzen dute: Txillida irudimena zen, baina gainontzekoa guk egin behar izan genuen.

Istorio ugari

Behin, eskultura bat Madrilgo zubi batean jarri nahi zutela azaldu zigun Txillidak. Baina, azkenean, pisu handia zuela eta, ez zirela jartzera ausartu komentatzen dute langileek. Izan ere, asko dira Txillidarekin izandako hartu-emanean gogoratzen dituzten pasarteak. Azken emaitzan hasierako ideia aldatu zuten piezaren bat ere oroitzen dute: Pieza egiteko bidean ginenean gehiago ez moldatzeko esan zigun, hasierako ideian baino itxura hobea zuela esanez. Langileren batek jubilatu ondoren ere joan behar izan zuen lanera, artistak behin lana ondo egin zuen taldea erabili nahi izaten baitzuen ondorengo obrak egiteko ere.

Luis Txillida ere aspaldiko garaiak oroitzen aritu zen atzo langileekin. Une bereziak igaro zituen aitak Legazpin. Zuen bertute handienetariko bat taldean lan egitea zen, eta langileen ideiak entzutea gustuko zuen, esan zuen Eduardoren semeak.

Taldea piezaz pieza gidatu zuen artistaren seme Luisek, pieza bakoitza, langile batek zioen moduan, bakarra baita. Txillidak gustuko zuen ebakera naturala aztertu zuten; baita piezei ertzetan ematen zioten alakaketa ere. Eserlekuek eta mahaiek hiru hanka izan behar zituztela esaten zuela Txillidak oroitu zuten; labea behar adina ezin berotu izanagatik piezaren bat kurbatuta ateratzeak ez ziola axola izan ere bai.

Luis Txillidak aitak lanei eman nahi zien zentzua azaldu zien, pieza bakoitzaren historia esanez. Obra bakoitzaren sekretua ondo ezagutzen zuten langileek.

Guk gure lana egiten genuen, besterik ez, nabarmendu zuten atzo langileek. Baina pozik itzuli ziren Legazpira, eurek landutako piezak artea direla ikusita; eta, eurak, beraz, artistak.